

SINDIKATUAK,
ZUZENDUTAKO BEHIN-BEHINEKO
AGIRIA

2000/10/9

SINDIKATUEN ESTATUTUAK GORDAILUTZEKO AGIRI-EREDUA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak 35.g) artikuluan dioenari jarraituz, administrazioak, elkarrekin sindikalak sortzeko eta aurrera eramateko aholkularitza teknikoa eta lankidetzak eskaintzeaz gain, eskabide-eredu normalizatuak eskaini behar dizkie elkarrekin sindikalak sortu nahi dituztenei.

Arau hori betetzeko, eredu bateratu bat eskaintzen da (eskabidea, eraketa-akta eta Estatutuak). Horren helburua entitatea arautuko duten estatutuak egiterakoan nondik nora jo behar den erakustea izango da. Hori horrela, inolaz ere ez da pentsatu behar sindikatuak bere burua eratzeko duen ahalmenari baldintzak edo mugak ipiniko dizkionik. Izan ere, sindikatuak, bere nahierara, estatutuetan beste organo edo batzorde batzuk ezarri ahal izango ditu, bileren araubidea eta deialdia ezarri, erabakien "quoruma" eta erabakiak hartzeko beharrezko diren gehiengoak zehaztu, eta, indarreko lege-esparruaren barruan, antolaketaren eta funtzionamenduaren inguruko edozein erabaki hartu. Horretaz gain, eskabidea egoki iruditzen zaion moduan erabili ahal izango du, eta eraketa-akta ere nahi duen bezala eratu du.

Bestalde, Estatutu-eredua hobeto ulertu ahal izateko, honako hau adierazten da:

- a) Estatutuaren testuan zehar agertzen diren bidalketa-markak azalpenak emateko dira, eta erantsitako aurkibide batean jasota daude. Horien helburua sindikatuaren mekanikarekin eta funtzionamenduari lotutako zenbait gauza argitzea da.
- b) Hutsuneak, berriz, sindikatuaren izena, sindikatuaren helburuak, "quoruma", parte-hartzeak, plazak, nola parte hartu, organoak eta abar jartzeko dira. Sindikatuak berak hartuko du, askatasun osoz, horien inguruko erabakia.

ARREN, EZ BETE DATUAK ESTATUTU-EREDUAN. INTERESDUNAK
ESKATZEN BADU, EUSKARRI INFORMATIKOAN EMANGO ZAIO, TESTU-
TRATAMENDU EGOKIAZ EGIN DADIN

Jn./and.:

.....NAN/Egoitza-
agiriaren zk.: Jakinarazpenetarako helbidea: kalea
..... zk.: PK:.....
herria:..... Sortze-izapideetan ari den
"....." izeneko sindikatuaren
izenean eta hura ordezkatzuz (sindikatuaren lurralde-eremuak ez duko
lurraldea gainditzen). Jaun/andre horrek gaitasuna du izaera horrekin jarduteko,
horretarako baimena eman baitzioten an.....
ko.....arenan sindikatua sortzeko egin zen sindikatua sustatzeko
batzarreko puntuko erabakian, eta honakoa,

ESKATZEN DU:

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren Justizia, Lan eta Gizarte
Segurantza sailekoko Lurralde-Ordezkaritzak abian jar dezala
sindikatuaren Estatutuak gordailutzeko eta haiek publiko egiteko prozedura
(abuztuaren 2ko 11/1985 Lege organikoan, elkartze sindikalerako eskubidea
arautzen duenean, zehaztuta dago). Horretarako, eskabide honekin batera,
sindikatuaren eratze-aktaren eta onartutako Estatutuen hiruna ale eranstu ditu,
bai eta eratze-aktaren hiru aleak sinatzen dituzten pertsonen NANaren
fotokopia (edota egoitza-agiria, hori badagokio).

.....,koaren(e)an.

Izenpetua:

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN JUSTIZIA,
LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILEKOKO LURRALDE-
ORDEZKARITZA SAMANIEGO KALEA 2. 2.a 01008 - VITORIA-GASTEIZ.**

ERATZE-AKTA

<p>BERTARATUAK, HORIEN NAN ETA SINADURA</p> <p>1. JN./AND.: NAN: HELBIDEA:</p> <p>SINADURA.</p> <p>2. JN./AND.: NAN: HELBIDEA:</p> <p>SINADURA.</p> <p>3. JN./AND.: NAN: HELBIDEA:</p> <p>SINADURA.</p> <p>4. JN./AND.: NAN: HELBIDEA:</p> <p>SINADURA.</p> <p>5. JN./AND.: NAN: HELBIDEA:</p> <p>SINADURA.</p> <p>6. JN./AND.: NAN: HELBIDEA:</p>	<p>Lekua, data, ordua Alboan sinatzen dutenak bildu egin dira, denak adinez nagusiak eta norberaren izenean jardunik, "....."</p> <p>Sindikatura eratzeko eragile gisa, 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioan, Langileen Estatutuan, abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoan, Askatasun Sindikalari buruzkoa, eta bat datozen gainerako arauetan agindutakoaren arabera.</p> <p>Presidente gisa jaun/andrea aritzen da eta idazkari gisajaun/andrea.</p> <p>Presidenteak hitza hartu du eta adierazi du egintzaren helburua sindikatura eratzea dela indarreko legeriaren arabera. Ondoren, sindikatura arautuko duten Estatutuak irakurri dira, eta horiei buruzko eztabaidari ekin zaio.</p> <p>Dagokion eztabaidaren ondoren, ondorengo erabakiak hartu dira (aho batez/.....botoen gehiengoz):</p> <p>LEHENENGOA: "....." izena duen sindikatura eratzea.</p> <p>BIGARRENA: Sindikatura arautu behar duten Estatutuak onartzea. Estatutuen hiru ale gehitu zaizkio akta honi.</p> <p>HIRUGARRENA: Sindikatuaren ohiko gestioaz arduratuko den behin-behineko Osoko Batzordea izendatzea. Batzordekideen eta dituzten karguen zerrenda dokumentu honi gehitu zaio.</p> <p>LAUGARRENA: Estatutuen gordailua aginpidedun bulego publikoan lehenbailehen egitea baita haiek publiko egitea ere, Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoaren 4. artikulua arabera, sindikatuak nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izan ditzan.</p> <p>BOSGARRENA: Ahalmena emateajaun/andreaki, (NAN zk.:), eta.....jaun/andrea</p>
---	--

<p>SINADURA.</p> <p>7. JN./AND.: NAN: HELBIDEA:</p>	<p>ri (NAN zk.:), jakinarazpenetarako biek helbide hau dutela: kalea:.....zk:.....PK:..... herria:....., eraturako sindikatua ordezkatzeko, elkarrekin edo bereiz, Estatutuen gordailua egiteko behar diren izapideak egiteko, zuzenketak edo borondatezko hobekuntzak egiteko, bai eta nortasun juridikoa eskuratzeko eta bere kabuz jarduteko behar diren egintza juridiko eta gestioak egiteko eta bestelako egintza osagarrietarako ere. Ahalmena ematen zaie, halaber, eraturako sindikatua ordezkatzeko Auzitegietan, herri-administrazioetan eta gainerako pertsona fisiko edo juridikoen aurrean, harik eta afiliatuen lehen Batzarra egin eta organo zuzentzailea izendatu arte.</p>
<p>SINADURA.</p> <p>8. JN./AND.: NAN: HELBIDEA:</p>	<p>SEIGARRENA: Behin-behineko Osoko Batzordeari ahalmena ematea afiliatuen lehen Batzarraren deialdia egiteko, Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoaren 4. artikuluan, eta haren garapenezko xedapenetan aurreikusitako izapideak bete diren egiaztapena jaso eta hurrengo (egun/aste/hilabeteetan). Ahalmena ematen zaio, halaber, gai-zerrenda ezartzeko, eta bertan, gutxienez, sindikatuaren organo zuzentzailearen hautatzea edo berrestea jasoko da.</p>
<p>SINADURA.</p>	<p>Gai gehiago eztabaidatzeko ez daudenez, bilera amaitutzat eman dugu, egun berekoetan.</p> <p>Eta jasota gera dadin, akta hau hiru aletan egiten da etorri direnek hiru aleak sinatuta, goiburuko tokian eta datan.</p>

" " " "

SINDIKATUAREN BEHIN-BEHINEKO OSOKO BATZORDEA

IDAZKARI NAGUSIA:

Jn./And.
NAN
HELBIDEA

IDAZKARIORDE NAGUSIA:

Jn./And.
NAN
HELBIDEA

IDAZKARIA:

Jn./And.
NAN
HELBIDEA

DIRUZAINA:

Jn./And.
NAN
HELBIDEA

BATZORDEKIDEA:

Jn./And.
NAN
HELBIDEA

BATZORDEKIDEA:

Jn./And.
NAN
HELBIDEA

BATZORDEKIDEA:

Jn./And.
NAN
HELBIDEA

BATZORDEKIDEA:

Jn./And.
NAN
HELBIDEA

"....."

SINDIKATUAREN ESTATUTUEN EREDUA

1. Artikulua. Izena.

1. Irabazi-asmorik gabeko langileen elkarte sindikal bat eratzen da (aurrerantzean sindikatua), "....." izena duena, 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioan, Langileen Estatutuan, abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoan, Askatasun Sindikalari buruzkoa, eta bat datozen gainerako arauetan agindutakoari helduta.
2. (Ikurra eta logotipoa, hala badagokio).

2. Artikulua. Oinarriak, helburuak eta jarduerak.

1. Sindikatuaren helburu nagusia langileen eskubideak defendatzea da, bai eta haien lan-baldintzak hobekuntza izan daitezen etengabe eskatzea ere, kontuan harturik, langilearen indarra dela, berdintasun- eta aurrerabide-baldintzetan, defendatzeko daukan ondasun nagusia, askatasuna-, berdintasuna- eta justizia-balioekin batera. Sindikatuaren berezko helburuak dira giza eskubideak, gizarte-eskubideak eta oinarrizko eskubideak eta herriaren eta gizabanakoaren askatasuna defendatzea. Langileen interes profesionalak, politikoak eta sozialak defendatzen ditu, eta egiten dituen jarduerak, besteak beste, helburu hauek dituzte:
 - Langile afiliatu guztiek enplegu egonkorra izateko duten eskubidea defendatzea.
 - Langileei babes sozial osoa ematea.
 - Langile guztien gizarte- eta lan-parekatzea.
 - Langileentzako enplegu- eta lan-baldintza onenak lortzea.
 - Gizartearen sektore guztietako langileen elkartasuna lortzea, herrialde honetan eta guztietan. Horretarako, beste jarduera-adar batzuekiko konfederazioa bultzatuko da, langile guztien batasunari bide emateko.
 - Bizi-baldintza hoberenak lortzea, baita langile guztien gizarte- eta kultura-sustapena ere.
 -
 -
 -

-
-
2. Helburu horiek lortzeko, ezarritako lege-baldintzak bete ondoren, honako jarduera hauek egin ahal izango dira:

- Sindikatuaren berezko jarduerak, enpresaren esparruan edo bestelakoan. Hauek dira betiere barne hartzen dituen jarduerak: negoziazio kolektiboa egiteko eskubidea, greba egiteko eskubidea, langatazka kolektiboak edo banakakoak planteatzeko eskubidea, eta langileen ordezkarien hautaketan parte hartzeko eskubidea.

-
.....
.....
.....
Aurreko atalean azaldutako jardueren kalterik gabe, sindikatuak bere helburuak betetzeko honako hauek egin ditzake:

- Era guztietako ekonomi jarduerak egin, bere xedeak betetzeko edo helburu horietara bideratutako baliabideak biltzeko.
- Era guztietako ondasunak, titulua edozein izanda ere, eskuratu eta horien jabe izan, bai eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Legeen edo sindikatuaren Estatutuen arabera era guztietako egintzak erabili.

3. Artikulua. Lurralde- eta funtzio-esparrua.

1. Lurralde- eta funtzio-esparruako probintzia izango da(1).
2. Sindikatuan afilia daitezke zuzenbide-antolamenduak sindikatuan izena emateko eskubidea onartzen dien langileak,(2) harremana dutenak.

4. Artikulua. Helbidea.

1. Helbidea honako hau izango da: lekua:.....kalea:zk:
2. Helbidea lekuz alda daiteke, erabakiz gero, eta lekualdaketa Estatutuak gordailutzen dituen bulego publikoari jakinaraziko zaio.
3. Jarduera burutzeko, sindikatuaren egoitzaz bestelako egoitzak edo gelak ireki ahal izango dira, horrela erabakitzen badu.

5. artikulua. Iraupena.

Sindikatuak betirako eratzen da eta honako arrazoiengatik soilik desegino da: afiliatuen Ezohiko Batzarrek horrela erabaki duelako, 22. artikuluan; edota legeek ezarritako arrazoiren batengatik

6. Artikulua. Afiliazioa.

1. Estatutuen 3. artikuluan adierazitako lurralde- eta funtzio-esparruaren barnean dagoen edozein langilek sindikatuari afiliatzea eska dezake, askatasunez eta borondatez. Horretarako, langileak eskabide idatziaari bidaliko dio, eta horrek idazkari nagusiari jakinaraziko dio, onartzeko edo ez onartzeko erabakia har dezan. Errekurtsoa aurkez daiteke Osoko Batzordean.

2. Eskabideak sindikatuaren Estatutuak onartzea dakar (**3 eta 4**)

3. Afiliazioak jakinaraziko dio interesdunari. Jakinarazpenarekin batera dagokion egiaztagiria eta sindikatuaren Estatutuen kopia bat bidaliko zaizkio.

4. Idazkariak afiliatuen erregistro-liburu bat izango du; bertan, afiliatuen datu pertsonalak eta profesionalak jasota egongo dira.

7. Artikulua. Afiliatuen eskubideak eta betebeharrak.

A) Afiliatuen eskubideak:

1. Sindikatuaren jarduera eta erabaki guztietan parte hartzea.
2. Sindikatuaren bilera eta batzarretarako deialdia jasotzea eta haietara joatea, eta, hala badagokio, ordezkaritza-, gobernu- eta administrazio- organoetara ere bai.
3. Gobernu-, ordezkaritza- eta administrazio- organoak hautatzea eta hautagai izatea.
4. Bere legezko interesak eta eskubideak nagusitzeko babesak izatea.
5. Aholkularitza eta laguntza jasotzea eta ematea, bere partaidetza sindikala garatzeko, bere zeregin sindikala bermatzeko eta defendatzeko, eta bere lan-harremanak garatzeko.
6. Bere iritzia adieraztea eta botoa askatasunez ematea, bai eta Legearen edo Estatutuen aurkako erabakiak eta jarduerak aurkatzea.
7. Afiliatuen fitxategian agertzea, sindikatuaren jardueren berri izatea eta sindikatuaren liburu eta kontuak aztertzea.

8. Estatutuen eta barne-araudiaren ale bana edukitzea, egongo balitz, eta organo zuzentzaileei eskabideak eta kexak aurkeztea.
9. Afiliatu guztiek erabil ditzaketan baliabideak, zerbitzuak eta bereziki zerbitzu juridikoak izatea, organo zuzentzaile aginpidedunek kasu bakoitzerako erabakitzen duten moduan.
10. Zigor-neurriak hartu baino lehen, idatziz bere arrazoiak azaltzekoa, eta neurri horiek ezartzea eragin duten arrazoiak zein diren jakitekoa. Arrazoi horiek, ezinbestean, afiliatu-betebeharrak ez betetzean oinarritu beharko dute.
11. (5)

B) Afiliatuen betebeharrak dira:

1. Afiliatzeko eskabidearekin batera onartutako Estatutuak betetzea.
2. Baliotasunez onartutako erabakiak derrigortzea, lotzea, defendatzea eta betetzea.
3. Sindikatuaren organo zuzentzaileek ezarritako kuotak edo ekarpenak ordaintzea (6).
4. Deituriko bilera guztietara joatea, eta enpresan edo lantokian deitzen diren bileretan eta batzarretan parte-hartze aktiboa izatea, bai eta lankideek beste batzuetara joateko aukeratu dutenean ere.
5. Gizarte-eskubideak, oinarritzko eskubideak eta herriaren eta gizabanakoaren askatasuna defendatzea, eta, bereziki, gizartea zuzenagoa, berdintasunezkoagoa eta askeagoa izan dadin borrokatzea.
6. Aniztasuna, tolerantzia eta dibertsitatea defendatzeko konpromisoa hartzea
7. (7)

8. artikulua. Afiliatu-izaera honako kasuetan galduko da.

1. Afiliatu-izaera honako kasuetan galduko da:
 - a) Borondatez bereizten bada(a)ri igorritako idatzi baten bidez (8).
 - b) Afiliatua hil edo ezgaituta geratzen bada.
 - c) Afiliatu izateko ezarritako baldintzak gerora betetzen ez baditu, edo ezgaitasunen bat badu (9).
 - d) Zigorra dela-eta bota egiten badute. Hori organo eskudunak erabaki dezake, honako kasua ematen bada: Estatutuetan adierazitako eginkizunak edo sindikatua zuzentzen duten organoek hartutako erabaki baliozkoak ez-betetzea, era larrian, behin eta berriro eta nahita.

2. Afiliatu izaera galdu arren, sindikatuarekiko izan ditzakeen obligazioak betetzeko errekerimendua egin diezaioke sindikatuak, obligaziorik baldin bada.

9. artikulua. Afiliatu-izaera galtzea zigorraren bidezko bereizketa dela-eta.

1. Afiliatu batek afiliatu-izaera galtzeko egoeran badago, zigorraren bidezko bereizketa dela-eta, idazkari nagusiak, beharrezkoa bada, idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbideak egin ditzan, behar den informazioa lortzeko. Informazio hori aztertuta, idazkari nagusiak jarduerak artxibatzeke agindu dezake, edo zigor-espeditenteari hasiera eman, 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Zigor-espeditenteari hasiera ematean, idazkari nagusiak erabaki dezake erruztatuak afiliatu-eskubideak galtzea, eta, sindikatuaren organo bateko partaidea bada, kargutik kentzea, harik eta espeditentea erabaki arte.

3. Idazkari nagusiak hartu duen afiliatu-izaera galtzeko erabakia, arrazoitua betiere, interesdunari jakinaraziko zaio, bai eta horren aurka, 7.A.6) artikuluan aurreikusitako jarduerak egin aurretik, errekurtsua aurkez dezakeela ere, egingo den lehenengo Osoko Batzordean. Batzorde hori egun/aste/hiletan deitzen ez bada, horretarako bakarrik deituko da.

4. Ikerketa-jarduerak eta zigor-espeditenteak eragindakoa idazkari nagusia edo Osoko Batzordeko beste edozein kide bada, Estatutuen 10.7 artikuluan aurreikusitakoa ezarriko da.

5. Afiliatu-izaera galtzeko erabaki irmoak sindikatuaren organoetako kide bati eragiten badio, zigorraren bidezko bereizketa dela-eta, kargua galtzea ekarriko du.

10. artikulua. Zigor-araubidea.

1. Idazkari nagusiak afiliatuak zigortu ahal izango ditu, Estatutuak edo sindikatuko zuzendaritza-organoez hartutako akordioak ez betetzeagatik

2. Zigorrak 15 egunetik hilabetera eskubideak gabetzetik afiliatu izaera galtzera artekoak izan daitezke, aurreko artikuluan ezarritako moduan

3. Horretarako, eta beharrezko irizten bada, idazkari nagusiak, beharrezkoa baldin bada, ikerketa egitea eska diezaioke idazkaritzari, zigorra izan dezaketen jarrerak argitzeko informazioa lortzeko. Hori kontuan izanda, idazkari nagusiak bi gauza erabaki ditzake: egintzak artxibatzea edo zigor-espeditentea irekitzea
4. Zigor-espeditentea irekitzen bada, instrukzio-jarduerak idazkariak egingo ditu. Horrek, gertaerak egiaztatu ondoren, egozten zaizkion karguak eta zigor-proposamena dituen idatzia jakinaraziko dio interesdunari, eta horrek egokien iruditzen zaiona alegatu ahal izango du. Alegazioak egiteko epeakoa izango da, eta alegaziorik izan ala ez, gaia idazkari nagusiari igorriko zaio, eta horrek ebatzi egingo du espeditentea hasi zenetik epean, gehienez.
5. Erabakia beti arrazoitua izango da, eta, 7.A.6 artikuluan adierazitako ekintzak gauzatu aurretik, horren aurka errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osoko Batzordeari.
6. Espeditentea Osoko Batzordera eramaten bada, idazkariak espeditentearen laburpena egingo du idazkari nagusiak erruztatuak aurkeztutako idatziaren berri eman diezaion Osoko Batzordeari eta behar bezala informatu ahal izan dezan, batzarrak gorako errekurtsua ebazteko
7. Ikerketa-jarduerak eta zigor-espeditenteak eragindako pertsona idazkari nagusia bada, artikuluko honetako aurreko paragrafoetan hari emandako funtzioak Osoko Batzordeak hartuko ditu bere gain. Eragindako pertsona jakinaren gainean dagoenean, ez da Osoko Batzordeko kidea izango, eta afiliatuen Batzarrari dagokio gora jotzean erabakitzea. Eragindako pertsona Osoko Batzordeko beste edozein kide bada, aurreko paragrafoetan agindutako prozedura ezarriko da, gauza bat izan ezik: interesdunak ezingo du gora jotzean erabakiko duen Osoko Batzordean parte hartu, ezta ikertzaile ez izapidegile izan ere.

11. Artikulua. Ordezkaritza-, gobernu- eta administrazio-organoak. (10)

1. Ordezkaritza-, gobernu- eta administrazio-organoak honako hauek izango dira:
 - a) Afiliatuen batzarra.

- b) Osoko Batzordea.
- c) Idazkari nagusia.

2. Halaber, afiliatuek sindikatu-batzordeak eratu ditzakete lantokian edo enpresan, indarreko legeriaren arabera.

A) ORGANO KOLEGIATUAK

12. artikulua. Afiliatuen batzarra:

1. Afiliatuen Batzarra afiliatuen iritzia adierazteko eta zuzentzeko organo gorena da. Afiliatu guztiek osatzen dute (11).

2. Batzarra, orokorrean, gutxienez urtean behin eta hiruhileko naturalean deitu beharko da, sindikatuaren interesak defendatzeko jardueren programak, planak, eta estrategiak onartzeko, eta, hala badagokio, inbentarioa, diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa, aurreko urteko memoria eta hurrengo urteko aurrekontuak eta gainerako organo zuzentzaileen gestioa aztertzeko eta onartzeko. Organo horiek beti Batzarraren arauen arabera eta kontrolpean aritu beharko dute.

3. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe, afiliatuen Batzarraren eskuduntzak dira:

- a) Estatutuen aldaketa onartzea.
- b) Osoko Batzordea eta gainerako organo zuzentzaileak hautatzea.
- c) Sindikatuaren deuseztapena, hala badagokio, erabakitzea.
- d) Sindikatua bat-egitea, federatzea edo konfederatzea edo horietako bat uztea erabakitzea.
- e) Osoko Batzordeko eta gainerako organo zuzentzaileko kideen kargu-uztea edo baliogabetzea.
- f) Estatutu hauetan berariaz adierazitako gainerakoak.
- g) (12).

4. Afiliatuen Batzarrak ohiz kanpoko bilkura izango du, Osoko Batzordeak eskatzen badu, norbere ekimenez nahiz idazkari nagusiak edo Batzarreko kide guztien eskatuta, bileraren arrazoiak eta helburua zehaztuta, eta beti honako gai hauek ezagutzeko eta erabakitzeko:

- a) Estatutuen aldaketa onartzea.
- b) Sindikatua desegitea erabakitzea.
- c) Sindikatua bat-egitea, federatzea edo konfederatzea edo horietako bat uztea onartzea.

5. Afiliatuen Batzarren deialdiak, ohikoak nahiz ohiz kanpokoak, idatziz egingo dira, eta tokia, data eta biltzeko ordua eta gai-zerrenda adieraziko dira, baita, hala badagokio, bigarren deialdiko data eta ordua ere.

Deialdia egiten denetik Batzarra egiteko (lehenengo deialdia) finkaturiko eguna arte gutxienez eguneko tartea egon beharko da; Batzar Orokorreko bigarren deialdia egin behar bada, lehenengo eta bigarren deialdien artean gutxienez egun/ordu/minutuko tartea egon beharko da.

6. Estatutu hauetan bestelakorik berariaz arautzen ez den bitartean, afiliatuen Batzarrak, ohikoak nahiz ohiz kanpokoak, baliotasunez eratuko dira lehenengo deialdian, baldin eta batzarkideen erdiak gehi batek parte hartzen badute, bertaratuak edo ordezkatuak; eta bigarren deialdian, parte hartzen duten batzarkide-kopurua edozein dela ere.

7. Batzarkideek beste edozein kideri eman diezaiokete Batzarrera joateko ordezkaritza. Ordezkaritza idatziz emango da, eta Batzarreko idazkari nagusiak edukiko beharko du, gutxienez bilera hasi baino ordu lehenago.

8. Afiliatuen Batzarren erabakiak botoen gehiengo soilez hartuko dira **(13)**, non eta Estatutu hauetan erabaki jakin batzuk hartzeko gehiengo berezitua bat eskatzen ez denean.

13. artikulua. Osoko Batzordea.

1. Osoko Batzordea honako hauek osatuko dute: idazkari nagusiak, idazkariorde nagusiak, idazkariak, diruzainak eta batzordekide **(14)**.

2. Batzordea gutxienez aldizkakotasunez bildu beharko da, bai eta sindikatuaren jarduerak ondo garatzeko biltzea beharrezkoa dela ikusten bada ere.

3. Osoko Batzordeko kideren bat, hilabeteko epean, ez bada joaten aurretik deitutako bileretara —..... aldiz jarraian edota aldiz txandakatuta—, bere kargua kenduko zaio, hutsegiteak arrazoitzen ez baditu, bederen.

4. Osoko Batzordeko kargudunak afiliatuen Batzarrak hautatuko ditu urterako, berariaz kargugabetzen ez badira, eta berriro hautatu ahal izango dira

5. Kargudunak (15) berrituko dira.

6. Osoko Batzordeko kide izateko, honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Estatutuetan adierazitako moduan izendatuak izatea.
- b) Sindikatuko afiliatua izatea (16).

7. Osoko Batzordeko kargua hartzeko, afiliatuen Batzarrak izendatu ondoren, izendatuak kargua onartu edo horren jabe egin beharko du (17).

8. Karguek ez dute ordainik izango (18). Dena dela, afiliatuen Batzarrak, egoki irizten badu, dietak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

9. Osoko Batzordeko kideek honako kasuetan galduko dute kargua:

- a) Agintealdia amaitu egin bada.
- b) Kargua uzten badute (19).
- c) Afiliatu-izaera galtzen badute, edo ezgaitasuna badute.
- d) Afiliatuen Batzarrak kargugabetu egiten baditu, Estatutuetako 13.4. artikulua ezarri zaielako.
- e) Afiliatu-izaera galtzea dakarren zigorra jasotzen badu, edo automatikoki kargugabetzen badute, Estatutuen 13.3 artikuluan araututako arrazoiren batengatik.
- f) Heriotzagatik.

10. Kargugabetzea a) atalean adierazitako arrazoiagatik gertatzen bada, Osoko Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute kargu berriak hautatuko dituen afiliatuen Batzarra egin artean.

Aurreko 9. paragrafoko kasuren bat gertatzen bada Osoko Batzordeak afiliatuen Batzarra premiaz deituko du, gehienez ere (eguneko/asteko/hilabeteko) epean, kide berri bat aukeratzeko. Deialdiarekin batera kandidaturak aurkezteko epea irekiko da.

11. Osoko Batzordeko kideren batek agintealdia amaitu baino lehen uzten badu kargua, ordezkoa agintealdia amaitzeko geratzen den eperako izendatuko da soilik.

12. Osoko Batzordeak honako eginkizunak ditu:

- a) Sindikatuaren kudeaketa arruntaz arduratzea, afiliatuen Batzarrak emandako jarraibideekin bat, eta haren kontrolpean.
- b) Sindikatuak burutu beharreko jardueren egitasmoa egitea.
- c) Afiliatuen Batzarrari aurkeztea inbentarioa, aurreko urteko gastuen eta diru-sarrereren memoria eta likidazioa, eta hurrengo urteko aurrekontua, horrek onartu edo ezeztatu ditzan.
- d) Afiliatuen Batzarrari igortzea jarduera-programak, -planak eta -estrategiak, horrek onartu edo ezeztatu ditzan.
- e) Ohiko eta ezohiko afiliatuen Batzarrak deitzea erabakitzea eta horren eguneko aztergaiak egitea.
- f) Afiliatuen proposamenak edo iradokizunak jasotzea, eta horien inguruan egoki diren neurriak hartzea.
- g) Estatutu hauetan berariaz adierazitako guztiak.
- h) Estatutu hauetan berariaz beste organoren bati esleituta ez dauden guztiak.

13. Osoko Batzordea idazkari nagusiak —edota idazkariorde nagusiak, horrela badagokio— eskatzen duenean bilduko da, dela bere erabakiz, dela batzordekideen eskatuta (afiliatuek/afiliatuen ordezkariak) edo afiliatuen eskatuta. Batzordearen buru idazkari nagusia izango da — hori ez badago, idazkariorde nagusiak, eta biak falta badira, batzordekide zaharrena.

Estatutuetan berariaz beste zerbait arautzen denean salbu, osoko batzordeko erabakiak baliozkoak izateko, bertaratutako en gehiengoaren aldeko botoz hartu beharko dira, eta batzordekideen erdiak egon beharko du bileran.

Idazkariak bilkuren akta egingo du, eta gero horiek akta-liburuan idatziko ditu.

B) PERTSONA BAKARREKO ORGANOK

14. artikulua. Idazkari nagusia.

1. Sindikatuko idazkari nagusia horren ordezkaria izango da, Osoko Batzordeak eta afiliatuen Batzarrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu, eta bi gobernu-organo horien buru izango da.

2. Eskuordetzen dizkieten ahalmen guztiez gain, honako ahalmenak izango ditu idazkari nagusiak:

a) Osoko Batzordeen eta afiliatuen Batzarren deiak egitea eta horien bilerak amaitutzat ematea, bateko zein besteko eztabaidak zuzentzea, eta bi organoetan kalitate-botoa izatea bozketan berdinketarik gertatzen bada (20).

b) Afiliatuen Batzarrari sindikatuaren planak, programak eta estrategiak proposatzea Osoko Batzordearekin batera, eta bien lanak bultzatu eta zuzentzea.

c) Sortu daitezkeen premiazko arazoei irtenbideak ematea, eta Osoko Batzordeari haien berri ematea horrek egiten duen lehenengo bileran.

d) Estatutuetan berariaz adierazitako guztiak.

3. Idazkari nagusia ez badago, edo kargua aldi baterako ezin badu bete, idazkariorde nagusiak ordeztuko du, eta hau ez badago edo ezin badu, ordezkoak.

15. artikulua. Idazkariorde nagusia.

1.- Idazkariorde nagusiak (21) idazkari nagusiari lagunduko dio, eta hura ez badago, edo aldi baterako ezin badu kargua bete, ordezkatu egingo du. Era berean, idazkari nagusiak edo gainerako zuzendaritza-organoek berariaz eskuordetzen dizkieten ahalmen guztiak izango ditu.

2.- Idazkariorde nagusia ez badago, edo kargua aldi baterako ezin badu bete, Osoko Batzordeko kide zaharrenak ordeztuko du.

16. artikulua. Idazkaria.

1. Sindikatuaren gainerako zuzendaritza-organoek eskuordetzen dizkieten ahalmenen kaltetan gabe, idazkariaren zeregin zehatzak honakoak izango dira: sindikatuan afiliatzeko eskaerak jaso eta izapidetzea, afiliatuen fitxategia eta erregistro-liburua egunean edukitzea, akta-liburua zaindu eta han idaztea, eta Estatutuetan berariaz aurreikusitako guztiak.

2. Horretaz gain, langileen elkarte sindikalen arloan indarrean dauden lege-xedapenak bete egiten direla zainduko du —batez ere, Estatutu sozialen eta Estatutuen aldaketaren inguruko erabakiak gordailutu eta publiko egiten

dirrela, bai eta sindikatua federatu edo konfederatzearen ingurukoak ere—, sindikatuaren agiri ofizialak gordeko ditu, sindikatuaren liburuen eta artxibategien edukiaren inguruko egiaztagiriak emango ditu, eta sindikatuaren egoitza aldatzen bada, agintari eskudunari horren berri ematen zaiola bermatuko du.

3. Idazkaria ez badago, edo kargua aldi baterako ezin badu bete, Osoko Batzordeko kide gazteenak ordeztuko du

17. artikulua. Diruzaina.

Sindikatuaren gainerako zuzendaritza-organismoek eskuordetzen dizkioten ahalmenen kaltetan gabe, diruzainak honako eginkizunak izango ditu: hitzartutako ordainketak agintzea, diru-sarreraren eta ordainketen berri ematea; inbentarioa egitea; aurreko urteko diru-sarreraren eta gastuen memoria eta likidazioa egitea; eta hurrengo urteko aurrekontuak egitea. Horiek guztiak Osoko Batzordeari igorriko dizkio, afiliatuen Batzarrerara eraman eta horrek onartu edo ezeztu ditzan (22 eta 23).

18. artikulua. Hauteskunde-erregimena.

1. Gobernu-, administrazio- eta ordezkaritza-organismoetako kideak zuzeneko eta isilpeko boto ematearen bidez hautatuko dira.

2. Osoko Batzordeko kideak afiliatuen Batzarrak hautatuko ditu, Batzorderako kandidatura aurkeztu duten afiliatuen artean.

3. Idazkari nagusiaren eta idazkariorde orokorraren hautaketa Osoko Batzordeko gainerako kideen hautaketa ez bezalakoa izango da, eta, kargu horiek hautatzeko, kandidatuek, lehenengo botazioan, Batzarrean dauden kideen edo haien ordezkarien aldeko botoa lortu beharko dute; baina portzentaia hori lortu ez delako, 2. botazio bat egin behar bada, emandako botoen aldeko botoa beharko da, eta botazio honetan aurreko botazioan botoen gehiengoa lortu duten bi hautagaiek baino ezingo dute parte hartu.

19. artikulua. Baliabideak eta araubide ekonomikoa.

1. Sindikatuak honako baliabide ekonomikoak izango ditu:

a) Sarrera-kuotak, onartutakoak.

b) Aldian aldiko eta ezohiko kuotak, onartutakoak.

c) Berari dagozkion ondasunen eta eskubideen etekinak, eta ondorengo hauek: dirulaguntzak, legatuak, dohaintzak eta edozein titulu juridikoren bidez legez jaso eta onar dezakeen gainerako ondasun eta eskubide oro.

h) Sindikatuak —betiere, Estatutuetan adierazitako helburuen barruan— erabakita egiten dituen legezko jardueretatik lortutako diru-sarrerak.

2. Sindikatuak lortutako baliabideak ezin izango dira inoiz afiliatuen artean banandu.

3. Ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat etorriko da, lehenengoa izan ezik. Izan ere, kasu horretan, sindikatuaren sorrera-egunean hasiko da eta urte horretako abenduaren 31n amaitu.

4. Urtero, Osoko Batzordeak afiliatuen Batzarrera igorriko ditu inbentarioa, aurreko urteko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa eta memoria (hor jarduerak eta kudeaketa ekonomikoa adieraziko dira, eta ondarean eta sindikatuaren zuzendaritza-organoetan izandako aldaketak zehaztuko dira) eta hurrengo urteko aurrekontuak, batzarrak onartu ditzan.

5. Aurrekontuek eta kontuek indarrean dagoen legediak ezarritakoa beteko dituzte, eta legediak horrela eskatzen badu, kanpo-ikuskaritza pasa beharko dute.

6. Sindikatuaren aurrekontuak, ohikoak zein ezohikoak, orekatuak izango dira, betiere.

7. Afiliatu-eskubideak etenda ez dituen afiliatu orok sindikatuaren egoera ekonomikoa adierazten duten agiriak erakuts diezazkieten eskatu ahal izango du.

20. artikulua. Estatutuen aldaketa.

1. Estatutuen aldaketa Osoko Batzordearen ekimenez egin daiteke, haren erabakiz, edo hark erabakitzen badu, idazkari nagusiak eskatzen badu, batzordekideen eskatzen badute, edota (afiliatuen/afiliatuen ordezkarien) eskatzen badute. Dena den, kasu guztietan Osoko Batzordeak (afiliatuz/afiliatuen ordezkari) osatutako lantalde bat osatuko du, aldaketa-proiektua idatz dezan. Horretarako, Osoko Batzordearen ildoetara jarraituko zaie, eta batzorde horrek ezarriko du proiektua zein egunerako amaitu behar den.

2. Aldaketa-proiektua idatzita dagoenean, idazkari nagusiak egingo den lehenengo Osoko Batzordearen eguneko aztergaietan sartuko du. Horrek behin-behingo onartuko du, horrela irizten badu, edo berriro lantaldeari itzuliko dio berriz ere aztertu dezan.

3. Behin-behingo onartzen bada, Osoko Batzordeak egingo den hurrengo ezohiko Batzarrean sartuko du, edo horretarako propio deituko du batzarra.

4. Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuen aldaketaren testua erantsiko da, kideek idazkaritzari egoki irizten dituzten zuzenketak bidaltzeko. Afiliatuen Batzarrean, zuzenketa horien berri emango da, baldin eta bilera egin baino egun lehenago idazkaritzaren esku badaude.

5. Zuzenketak banakoek nahiz taldeek aurkeztu ahal izango dituzte. Idatziz egin beharko dira eta testu alternatiboa eduki beharko dute.

6. Afiliatuen Ezohiko Batzarrak Estatutuak aldatu ahal izan ditzan, honako quorumak beharko dira: batzarra eratzeko, lehenengo deialdian, bazkidekoa, bigarrenean bazkidekoa; eta bozketan, bertaratuen, kideen direla, gutxienez.

7. Estatutuen aldaketa onartutakoan, idazkariak Estatutuak eskudun den bulego publikoan gordailutzea eskatuko du, indarrean dagoen legedian aurreikusitako moduan.

21. artikulua. Sindikatuaren Fusioa, Federazioa edo Konfederazioa.

1. Sindikatua fusionatu, federatu edo konfederatu ahal izango da, Osoko Batzordeak proposatuta edo berak erabakita, dela idazkari nagusiak eskatuta, dela batzordekideen eskatuta edo (afiliatuen/afiliatuen ordezkarien) eskatuta.

2. Erabakia afiliatuen ezohiko Batzarrak hartu beharko du. Horren deia Osoko Batzordeak egingo du, eta gaia berariaz sartu beharko du eguneko aztergaietan.

3. Erabakia hartu ahal izateko, honako quorumak beharko dira: batzarra eratzeko, lehenengo deialdian, kidekoa, bigarrenean kidekoa; eta bozketan, bertaratuen, kideen direla, gutxienez.

4. Sindikatua federatzea edo konfederatzea onartutakoan, idazkariak eskudun den bulego publikoan gordailutzea eta publiko egitea eskatuko du, indarrean dagoen legedian aurreikusitako moduan.

22. artikulua. Sindikatua desegitea eta ondarearen zertarakoa

1. Sindikatua honako hauengatik desegin da:

- a) Afiliatuen nahiaz. Nahi hori horretarako propio bildutako afiliatuen ezohiko Batzarrean azaldu beharko da, eta bertan daudenen botoen gehiengoz onartu beharko da (afiliatuena/afiliatuen ordezkariena).
- b) Zuzenbide-ordenamenduan adierazten diren arrazoiengatik.
- c) Epai irmo bidez.

2. Sindikatua desegin egiten bada, sindikatuen ezohiko Batzarrak likidazio-batzordea izendatuko du. Likidazio-batzordea Osoko Batzordeko kidek osatuko dute, eta hori arduratuko da sindikatuaren diruaz.

3. Sindikatuak afiliatuekiko eta besterekiko dituen obligazioak ordaindu ondoren geratzen den ondare soziala, geratzen bada bederen, honakoei emango zaie (24)

Aldi baterako xedapena.

Eratze-agirian behin-behingo izendatutako Osoko Batzordeko kideek beren izendapena egingo den lehenengo afiliatuen Batzarraren esanetara jarri beharko dute.

Azken xedapenak.

Lehenengoa. Osoko Batzordea izango da Estatutu hauetan agertzen diren edukiak interpretatzeko eta izan ditzakeen hutsuneak betetzeko eskumena duen organoa. Horretarako, langile sindikatuen alorreko lege-araudia bete beharko du beti, eta lehenengo afiliatuen Batzarrari horren berri eman beharko dio, horrek onar ditzan.

Bigarrena. (Afiliatuen Batzarrak / Osoko Batzordeak) Barne-araubidea onartu ahal izango du, Estatutu hauetan ezarritakoa garatzeko. Araubideak ezin izango ditu Estatutuetako xedapenak aldatu.

ESTATUTUEN EREDUAREN ERANSKINA
BIDALTZE-MARKEN AURKIBIDEA

1. Ezin du gaingitu, baina hori baino eremu txikiagoa hauta daiteke.
2. Adar espezifikoko bati loturiko sindikatu bat eratu nahi bada, elkarte sindikala zein jarduera-adarri buruzkoa den zehaztu behar da bakarrik (hau da, ekonomi jardueraren esparrua, lanbidea edo antzeko kontzeptu bat); bestelako kasuetan "..... harremana duena" kendu egin behar da.
3. Gainera, bestelako baldintzak ere gehitu daitezke, esate baterako, eskabide idazkia afiliatuak abalatu izatea; afiliatu-izaera ez izatea sarrera-eskubideak ordaindu arte, egongo balira, aginpidedun organoak ezarritako zenbatekoan eta moduan.
4. Arautu daiteke zenbait taldek kuotak (ohikoak edo ez) ez dituztela ordainduko, dena edo zati bat, hala nola langabetuek, erretiratuek, enplegu- eta soldata-zigorra jaso dutenek...
5. Eskubideei dagokienez, adierazi behar da afiliaturen batek sindikatua berak nahi duelako uzten badu, sindikatua uzten duen afiliatuak aurretik egindako ekarpenengatik eskubidea duela sindikatuaren ondarean, baldin eta Estatutuetan berariaz horrela jasotzen bada.

Horrela bada, Estatutuetan dagokion ondare-zatia kitatzeko eskubidea ezarri ahal izango da. Hori zenbatzeko, afiliatuak egindako ekarpenak izango dira kontuan —kuota arruntak izan ezik—, baldin eta ondare-murrizketak hirugarrengorik kaltetzen ez badu.

Estatutuetakoa klausuletan bestelakorik azaltzen ez bada, afiliatuak, bere nahiaz, afiliatu izateari uzten dionean, ezin izango du sindikatuaren ondaretik bere zatia eskatu, sindikatuari egindako ekarpenak jabetza-eskualdatzeak baitira eta ez maileguak.
6. Sarrerakoak, aldian aldikoak eta ezohikoak izan daitezke, Afiliatuen Batzarrak edo Osoko batzordeak ezarritakoak, Estatutuetan adierazten den bezala.
7. Estatutuen arabera, karguak betetzea derrigorrezkoa balitz, gomendagarria da berariaz adieraztea.
8. Ez da beharrezkoa baja emateko eskaera egiteko modu berezirik eskatzea, forma-askatasuna baitago. Dena den, froga moduan erabiltzeko, komenigarria da eskaera idatziz egitea eta jaso izanaren adierazpena izatea. Ez du erantzunik behar, alde bakarreko ekintza izanik, beste ezer gabe du-eta eragina. Eskubideen inguruan, ikus 5. oharra.

Aldi baterako baja. Estatutuek egoera hori ere aurreikus dezakete: sindikatua uztea baina berriz sartzeko eskubidea izatea
9. Estatutuetan onartzeko baldintza espezifikokoak arautzen badira.
10. Sindikatuak antolamendu-egitura edo organo zuzentzaileen egitura egokiena ezarri ditzake, eta proposamen gisa Estatutuetakoa eredu eskainiko da. Horiei dagokienez, legearen arabera hautaketa eta funtzionamendu demokratikoa bermatu behar dira; organo

bakoitzaren aginpideak arautu behar dira, baita hautatzeko modua eta osaera ere; funtzionamenduari dagokionez, eraketa- eta botazio-quorumak ere arautu behar dira.

Sindikatuak beste zuzendaritza- eta aholku-organo batzuk edo lan-batzorde batzuk eratu ahal izango ditu. Horien osaera, eskumenak eta araubidea Estatutuetan arautuko da, edo, bestela, Barne-araubidean

11. Afiliatu-kopurua handia izango dela aurreikusten bada edo bestelako kasuetan, ohikoa da zeharkako ordezkari-tza-metodoa aukeratzea; hau da, langile afiliatuek ordezkariak zuzenean aukeratzea lantokietan, ordezkari-tza proporzionaleko irizpideei jarraituz eta ahalik eta lantoki gehien ordezkari-tza egon daitezen saiatuz. Langileek hautatutako ordezkarien bidezko langileen zeharkako partaidetza aukeratzeko bada, paragrafo hau aldatu egin behar da, aditzera emateko Batzarra "langile afiliatu guztien ordezkari-tza" osatzen dutela, langile afiliatuen ordezkari-tza.
12. Sindikatuak afiliatuen Batzarrari beste eskumen batzuk ere eman ahal izango dizkio. Horiek berariaz adieraziko dira edo honako hondar-klausula baten bidez: "afiliatuen Batzarrari dagozkio Estatutuetan berariaz beste organo bati esleituta ez dauden eskumen guztiak". Hondar-eskumenak afiliatuen Batzarrari ematen bazaizkio, Estatutuen eredu-ko 13.12.h) artikulua kentzea gomendatzen da (hor, Osoko batzordeari esleitzen zaizkio hondar-eskumenak). Horrela, berariaz adierazita ez dauden eskumen horiek bi organori ematea eragotzi nahi da, organo eskumenduna zein den erabakitze-ko arazorik egon ez dadin.
13. Sindikatuak berak zehatz ditzake erabakiak hartze-ko behar-ko diren quorumak eta gehiengoak. Gehiengo berezia ere ezarri ohi da —bertaratutako-ko gehiengo absolutua, eskuarki, edo gehiengo berezitu handiagoa— Estatutuak aldatze-ko, eta sindikatu-a desagite-ko, fusionatze-ko, federatze-ko edo konfederatze-ko. Horrela jasotzen da, hain zuzen, eredu-an.
14. Sindikatuak, gutxienez, idazkari nagusia eta idazkaria izatea komeni da. Komenigarria da diruzaina ere izatea, eta sindikatu-aren beharren arabera, beste kargu batzuk ere izatea (idazkari-ordea, batzorde-kideak, etab.). Dena den, adierazi den bezalaxe, zehaztu egin behar dira organo zuzentzaile kolegiatu-aren osaera eta 10. oharrean adierazitako gainerako gaiak.
15. Karguak denak batera edo zatika berritu daitezke. Berritzea zatika egitea komeni da sindikatuak bere bizitza normaltasunez egiten jarraitzea hobeto ziurtatzen baita. Zati batean berritzen bada, artikulua honela idatzita egongo litzateke: "Lehen txandan kideen (kargu zehatzak adierazi ahal izango dira) %50 berrituko da (beste ehuneko bat ere ezar daiteke). Bigarreanean, gainerakoak". Zati batean berritzea ezartzen bada, lehenengo Osoko batzordera berritze-sistema horretatik kanpo geratzen dela adierazi behar-ko litzateke. Izan ere, Batzar-ak osorik hautatuko du, eta Estatutuetan edo organo horretan erabakiko da lehenengo Osoko Batzorde-ko zenbat berrituko diren Estatutuen 13.5. artikuluan adierazitako epe-aren erdia igarotzen denean.
16. Batzorde-kide izate-ko, beste baldintza batzuk ere ezarri ahal izango dira: antzinasun-aldi bat izatea afiliatu moduan (lehenengo batzorderako izan ezik) edota beste batzuk.

17. Sindikatuak karguaz jabetzea borondatezkoa ala derrigorrezkoa den ezar dezake. Derrigorrezkoa bada, kargurako izendatutakoak bi aukera izango ditu: kargua onartzea edo sindikatuan baja ematea.
18. Estatutuetan aurkakoa ezartzen bada izan ezik.
19. Kargua derrigorrezkoa dela ezartzen ez bada. Horrela ezartzen bada, b) paragrafoa kendu beharko da eta artikuluko hori aipatzen den 13. artikuluko 10. paragrafoa.
20. Presidentearen boto erabakitzaila aukerakoa da. Beraz, Estatutuetako 14.2.a) artikuluan honakoa kendu ahal izango da "eta bi organoetan kalitate-botoa izatea bozketan berdinketarik gertatzen bada".
21. Derrigorrezko kargua ez den arren, araututa egotea komeni da, idazkari nagusia ez badago edo aldi baterako gai ez bada, sindikatuaren bizitza eten ez dadin.
22. Sindikatuak batzordekide-kontuhartzailea izango balu, honako eginkizunak eduki litzake: kontuen liburua egunean edukitzea, hori zaintzea, kontuak ikuskatu eta gaitzestea, eta banku-sinadura edukitzea, beste organoekin batera ala ez. Sindikatuak Batzordekide-kontuhartzailerik izango ez balu, diruzainak eduki ahal izango ditu eginkizun horiek.
23. Lehen adierazitako karguez gain, sindikatuak beste zenbait ere ezar ditzake, esaterako: liburuzaina, argitalpen-arduraduna, etab.
24. Sindikatuaren hondar-ondarea ezin izango da afiliatuen artean banatu, eta antzeko erabileretarako izango da, edo, bestela, irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteei emango zaie.